



Zeresana
duten ahotsak

MigraGesto 2022

Abenduaren 12tik 18ra

Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna dela eta
Gogoeta, prestakuntza, sentsibilizazio eta ekintza partekatuko jarduerak

Aniztasunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan eta defentsan zuk ere badaukazu zer esana! **Gonbidatuta zaude!**

Bategin!

Egitaraua ikus dezakezu www.migragesto.org helbidean



ASTELEHENA

ABerastasun KULTURALA GAURKO PROPOSAMENA:

Ikasketa kooperatiboan oinarrituz, “1-2-4” egitea proposatzen dugu.

1. **Banakako hausnarketa:** ezagutzen dugu beste lekuren batetik gugana etorri behar izan duen pertsonarik? Beste nonbaiten jaio eta gure ingurura etorri behar izan duen norbait?
2. **Bikoteka eta gero taldeka** (lauko taldetan, adibidez) konpartitzen dira pertsona horien inguruan ezagutzen duten guztia, beraien kulturen inguruko informazioa bereziki.
3. **Talde handiarekin konpartitu daitezke lauко taldeetan konpartitutako kasurik berezi eta aberatsenak.**



Hausnarketarako aukerazko galdera batzuk:

Herri horiek mapa baten kokatu ditzakegu?

Herri horietako kultura mailako zerbait ezagutzen duzue?

Beraien hizkuntzetan zerbait esan dezakezu?

OTOITZA

Abenduaren 18-Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

MigraGesto 2022

Zeresana duten ahotsak

BIDEOA (Eus)

EBANJELIOA:

Lc 2, 1-7

ASTEARTEA

BIDAIAZKEKO edo MIGRAZKEKO ZERGATIAK

GAURKO PROPOSAMENA:

- Taldean hizketaldi bat proposatzen da: zeintzuk dira pertsona batek bere bizilekutik ihes egiteko edo migratzeko izan ditzakeen arrazoiak?
- Taldeko hausnarketa eta hizketaldiaren amaieran, proposatutako bideoa ikusiko dugu.
- Bideoaren ostean gure ideiak aldatu dira?



OTOITZA

Abenduaren 18-Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

MigraGesto 2022

Zeresana duten ahotsak

BIDEOA (EUS)

EBANJELIOA:

[Lc 1, 39-45](#)

ASTEAZKENA

BIDAIATZEKO moduak

GAI PROPOSAMENA:

- Bidaiatzeko modu desberdinak erakusten dituzten bideoak agertzen dira hurrengo esteketan.
- Gure inguru hurbilean ezagutzen al dugu gugana etortzeko beharra izan duen etorkin edo migranteren bat? Zelan uste dugu etorri direla pertsona horiek hona?

Abenduaren 18a-Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

MigraGesto 2022


Zeresana duten ahotsak

OTOITZA

ABESTIA

EBANJELIOA:

[Mt 2, 1-12](#)



OSTEGUNA

Harrera-HOSPITALIDADEa

GAURKO PROPOSAMENA:

- Gure inguruan hainbat erakundek lan egiten duten migranteekin batera edo migranteak laguntzeko. Zeintzuk ezagutzen dituzu? Zein da erakunde edo talde hauek egiten duten lana?
- Benetako testigantzak ikusiko ditugu
- Zein da testigantza hauetatik ateratzen dugun ondorioa edo ikasketa?

Abenduaren 18a-Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

MigraGesto 2022

Zeresana duten ahotsak



OTOITZA

EBANJELIOA:

[Rut 1, 6-19](#)



OSTIRALA

zeresana duten ahotsak-TESTIGANTZAK

GAURKO PROPOSAMENA:

- Gure ikastetxeko edo gure inguru hurbileko testigantza bat erabiliko dugu gaurko eguna kokatzeko.
- Horrezgain, beste bi testigantza eskaintzen ditugu aukera moduan. (ikasleekin landu aurretik, ikasleen adinera egokitu behar ditugu)

1. BIDEOA

2. BIDEOA

Abenduaren 18a-Migratzaileen eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna

MigraGesto 2022

Zeresana duten ahotsak

EBANJELIOA:

[Lc 2, 8-20](#)

DOKUMENTAL BAT IKUSIKO DUGU

**GOMENDAGARRIA DA BIDEOA AURRETIK IKUSTEA,
IKASLEEKIN MODU EGOKIAN LANDU AHAL IZATEKO.**

BIDEOA

LC 2, 1-7

Jesusen Jaiotza: "ez baitzen haientzat tokirik"

Garai hartan, mundu guztiaren errola egiteko agindu zuen Augusto enperadoreak. Lehen erroldatze hau Siriako gobernari Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira. Jose ere, Daviden familia eta jatorrikoa baitzen, Galileako Nazaret herritik Judeako Belen zeritzan Daviden herrira igo zen bere emazte Mariarekin, erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Belenen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta lehen-semea izan zuen; oihaletan bildu eta abere-aska batean ezarri zuen, ez baitzen ostatuan haientzat tokirik.

LC 1, 39-45

MariaK ELISABETI IKUSTALDIA

Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen: «Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

ATZERA

MT 2, 1-12

Jesus Judeako Belen herrian jaio zen, Herodes erregearen garaian. Jesus jaio ondoren, sortaldeko jakintsu batzuk azaldu ziren Jerusalemen, galdezka:

–Non da juduen errege jaioberria? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta gurtzera gatoz. Berri honekin larritu egin zen Herodes erregea, baita Jerusalem hiri osoa ere. Orduan, herriko apaizburu eta lege-maisu guztiak bildu eta Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten:

–Judeako Belenen, honela idatzi baitzuen profetak:

Eta zu, Judako Belen, ez zara, ez, Judako hirietan txikiena; zuregandik aterako baita buruzagia, Israel nire herria gobernatuko duena .

Orduan, Herodesek, jakintsuak isilean deiturik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Gero, Belenera bidali zituen, esanez: «Zoazte eta jakin xuxen haurraren berri eta, aurkitu ondoren, adierazi niri, neu ere gurtzera joan nadin».

Erregearen hitz hauek entzunik, abiatu egin ziren. Bidean, sortaldean ikusitako izarra agertu zitzaien eta biziki poztu ziren. Izarra aurretik joan zitzaien, haurra zegoen toki gainean gelditu arte. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten Maria bere amarekin eta, ahuspezturik, gurtu; ondoren, beren kutxatilak zabalduz, esku-erakutsiak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra .Gero, Herodesengana ez itzultzeko oharra ametsetan harturik, beste bide batetik herrialdera.

ATZERA

RUT 1, 6-19

Gerora, Moab lurraldean zegoelarik, entzun zuen Noemik Jauna bere herriari aldeko agertu zitzaiola uzta ugaria emanez. Hala, bere bi errainekin, Moab uzteko prestatu eta Judarantz abiatu ziren. 8 Baina, bidean, honela mintzatu zitzaien Noemi:

–Tira, itzul zaitezte zeuen etxera, nor bere amarenera. On izan bekizue Jauna, zuek niretzat eta hildakoentzat on izan zareten bezala.

Jaunak eman biezazkizue beste senar eta etxe bana.

Orduan, Noemik besarkatu egin zituen bere errainak, agurtzeko. Baina hauek, garrasika, negarrari eman zioten, 10 eta esan:

–Ez! Zurekin joan nahi dugu zure herrira.

Noemik erantzun zien:

–Itzul zaitezte, ene kutunok. Zergatik nahi duzue nirekin etorri? Honezkero izan ote dezaket nik beste semerik zuei senartzat emateko?

Itzul zaitezte, enetxook, zaharregia bainaiz ni berriro ezkontzeko; baina oraindik itxaropena izan eta, gaur gauean haurdun gelditurik, semerik izango banu ere, 13 haiek gizonduraino zain egon behar ote zenukete? Besteren batekin ezkontzeari uko egingo al zeniokete? Ez, ene kutunok, horrelakorik ez! Aurka jarri zait Jauna, eta zuei gertatuak nahigabeturik nauka.

RUT 1, 6-19

Haiek berriz ere negarrari eman zioten garrasika. Orduan, Orpak bere amaginarreba besarkatu zuen eta bere herrira itzuli zen. Rut, ordea, amaginarrebarekin gelditu zen. Noemik esan zion, orduan:

–Hara, Rut, zure koinata bere herrira eta bere jainkoengana itzuli da. Zoaz zu ere harekin.

Baina Rutek erantzun zion:

–Ez eskatu horrelakorik. Utzi zurekin joaten. Zeren zu nora joan, hara joango bainaiz ni ere; zu non jarri bizitzen, hantxe jarriko naiz ni ere; zure herria zein, huraxe izango da nirea ere; zure Jainkoa zein, huraxe nirea ere; zu non hil, hantxe hilko naiz ni ere, eta hantxe ehortziko naute. Betorkit Jaunarengandik zigorrik latzena, heriotzak ez bestek zuregandik aldenduko banindu!

Rutek bere erabakia harturik zeukala ikusirik, amore eman zuen Noemik. Eta Belenerantz abiatu ziren. Iristean, herri osoa asaldatu zen eta emakumeek hau zioten:

–Noemi bera ote da hau?

LC 2, 8-20

Aingeruak eta artzainak

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez kanpoan artaldea txandaka zaintzen. Jaunaren aingerua aurkeztu zitzairen eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek beldur-ikaraz gelditu ziren, eta aingeruak esan zien: «Ez beldurtu! Hara, berri on pozgarria dakarkizuet, bai zuentzat, bai herri osoarentzat ere:

Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna, jaio zaizue gaur Daviden herrian.

Eta hona seinalea: jaioberri bat aurkituko duzue oihaletan bildua eta askan etzana».

Bat-batean, zeruko aingeru-talde handi bat azaldu zen aingeruaren inguruan, Jainkoa goretsiz:

«Aintza zeru gorenean Jainkoari eta bakea lurrean berak hain maite dituen gizon-emakumeei!»

Aingeruek zerura alde egin zutenean, artzainek ziotsaten elkarri: «Goazen Belenera, Jaunak adierazi digun gertakari hori ikustera».

Joan ziren lasterka eta han aurkitu zituzten Maria, Jose eta jaioberria askan etzana. Ikusi zutenean, haurtxo hartaz esan zitzaiena kontatu zuten. 18 Artzainek esandakoa entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren. Mariak, berriz, gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartuz.

Artzainak, entzun eta ikusi zutenarengatik Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, dena

➤ aingeruak esan bezala gertatu baitzitzairen.

ATZERA